


**SALBUESPEN ESKAERA TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAN DESGAITASUNA DELA ETA**
Espte. zk.                     **TITULARRA - INTERESDUNA**

Izen-deiturak		NANA edo bestelako identifikazio agiriren bat		
Jakinarazpenetarako helbidea		PK	Herria	Probintzia
Finkoa	Mugikorra	e-posta		

**ORDEZKARIA - DOKUMENTU AURKEZLEA**

Izen-deiturak		NANA edo bestelako identifikazio agiriren bat		
Jakinarazpenetarako helbidea		PK	Herria	Probintzia
Finkoa	Mugikorra	e-posta		
<b>Harremanetarako hizkuntza</b> <input type="radio"/> Euskara <input type="radio"/> Ele bitan		<b>Sexua</b> <input type="radio"/> Emakumea <input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Besterik		<b>Harreman modua</b> <input type="radio"/> Paperean <input type="radio"/> Elektronikoa

**OHARRAK**

Non aurkeztu agiriak: Udal honetako ZU! Zerbitzuan.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Organo eskudunak emandako desgaitasunaren frogaria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena
- Ohiko gidaria azaltzen den ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia
- Ibilgailua gidatzeko baimena
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena
- Zinpeko aitortpena frogatzeko desgaitasuna duen pertsonak soilik erabiltzen duela ibilgailua

Salbuespen hau jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da. Ibilgailu berriek, aldiz, 2 hileko epea izango dute eskaera egiteko Trafiko Zuzendaritzan alta eman ondoren.

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla. DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauak jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen arabera eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz. Informazio gehiagorako kontsultatu gure pribatasun politika: <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216>. Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, beraren aurka agertu, tratamendua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

Udal informazioa jaso nahi dut: e-posta, SMS, etb.

Errenteria,

Eskatzailea

## ARAUDIA

### **(Uztailaren 5eko 14/198 Foru Araua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2-1-e artikulua)**

Zerga honetan salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aipatutako salbuespena ibilgailu batengatik bakarrik izango zaie aplikagarria horren onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65koa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65koa edo handiagoa duten pertsonak

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3.eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokitua badago.

Horretaz gain, salbuetsita daude guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65koa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena